

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

605

EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 26koa, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2025eko laguntzak.

Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendariaren 2025eko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez, Elkarrekin Bonuak Programaren 2025eko deialdia egin zen herritarren parte-hartzearen arloan.

Ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, eta ekainaren 17ko 110/2014 Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duen Dekretuaren 13.6 artikulua aurreikusitakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea 2025eko uztailaren 29ko Ebazpenaren babespean emandako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda eta jasoko dituzten zenbatekoak (ebazpen honen eranskinean jasota dago zerrenda). Ebazpen horren bidez, Elkarrekin Bonuak Programaren 2025eko deialdia egin zen herritarren parte-hartzearen arloan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 26a.

Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendaria,
AINHOA ZUGASTI BILBAO.

ERANSKINA

Elkartearen izena	Jasotako dirulaguntza (euroak)
Federación «Portugaleteko Aisialdi Sarea» para el desarrollo y la promoción del ocio y tiempo libre, la infancia, la adolescencia, juventud y voluntariado	10.000
Asociación Gitana Kale Dor Kayiko	8.490
Suspergintza Asociación de Intervención Social de Bilbao	4.970
Asociación Cultural Ikertze	4.970
Asociación de Mediación Ongizatea	4.480
Asociación Socioeducativa Kiribil Sarea	4.000
Euskalerriko Eskautak de Bizkaia	3.780
Asociación AISIBIZIA para el desarrollo y la promoción de la infancia, adolescencia y juventud	2.000
Asociación para el desarrollo comunitario Gozaldi Gazte Elkartea	2.000
Asociación para el desarrollo comunitario Umeak Kanean	1.750
Fundación EDE/EDE fundazioa	1.610
Fundación Troconiz Santacoloma	1.050
Oreka pertsonala eta elkarbizitza sustatzeko hezkuntza kontzientea	900